

**1196 – Evaluar para aprender. La innovación pendiente  
(Ikasteko ebaluatu. Egiteke dagoen berrikuntza)**

**Lola Torres – Campamento Norte**

Ebaluazioa funtsezkoa da ikaskuntza-prozesuan. Zer dakigun eta hobetzeko zer behar dugun erakusteko neurri bat bezalakoa da. Eta prozesu horretan ezinbestekoa da ikasleari ikasteko aukerak eskaintzea, bere lorpen eta zailtasunetan laguntzea eta, bereziki, eragozpenak gainditzen laguntzea. Zein eginkizun du ebaluazioak gure hizkuntza-eskoletan? Ikas-irakasteko erarekin koherentea den moduan ebaluatzen al dugu?

Ikastaro honetan, hizkuntzak ikasteko dugun erarekin koherenteak diren ebaluatzeko modu berriak ikasiko ditugu. Ebaluazioa irauli egingo dugu, egiazki ikas-tresna izan dadin; betiere, arrisku txikiko egoera komunikatiboak sustatuz, non huts egiten ahal dugun, baina, aldi berean erroreari garrantzia kendu eta geure burua hobetu ahal dugun. Horregatik, ikaskuntza bideratzeko gure modua eraldatzeko unean, honako galdera hauetatik abiatuko gara: zer, zergatik, noiz eta nola ebaluatu?

**Ikasgela ([www.irakasbil.eus](http://www.irakasbil.eus) > NIRE IKASTAROAK)**

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

**Helburuak**

- Hizkuntzen eskolan ebaluazioak duen eginkizunaz hausnartzea.
- Prozesuan zeharreko atzeraelikaduratik abiatuta, baliabideak eta estrategiak eskaintzea eskolan presentzia soziala aregotzeko.
- Lankidetzan bideratutako ebaluaziorako zein pertsonalerako baliabideak erabiltzean ikastea: errubrikak, ebaluazio-galdeketak, feedforwad-saioak eta irteera-txartelak, besteak beste.

**Edukiak**

- Ebaluazioa, probak eta feedbacka edo atzeraelikadura.
- Ebaluazio pertsonala eta autoebaluazioa: egunerokoa, portfolioak, NIA (Norberaren Ikas Alorra), ebaluazio-ituak eta irteera-txartelak.
- Elkarlanean bideratutako ebaluazioa eta parekoena.
- Atzeraelikadura eraginkorra helburu aurrez aurreko inguruneetan zein online direnetan.

## **Metodologia**

Ikastaroa metodologia aktiboan eta elkarlanean egindako jardunean oinarrituko da. Online dauden edukien eta bibliografiaren irakurketak parte-hartzaileak hausnarketara eta zenbait jardueratan parte hartzera bideratuko ditu.

## **Ebaluazioa**

Irakaslearen testuingurura egokitutako ebaluazio formatiboko proposamen baten diseinuan oinarrituko da ebaluazioa.

## **Bibliografia**

- Hattie, J. eta Timperley, H. (2007). The power of feedback. *Review of Educational Research*. 77(1), 81-112. <https://doi.org/10.3102/003465430298487>
- Richards, J.C. eta Lockhart, C. (1994). *Reflective teaching in second language classrooms*. CUP.
- Ruiz Martin, H. (2020). *¿Cómo aprendemos? Una aproximación científica al aprendizaje y la enseñanza* (1a edición). Editorial Graó.
- Sanmartí, P. (2007). *Evaluar y aprender: un proceso único*. Graó